



3. ZELULA-ZATIKETA = MITOSIA + ZITIZINESIA




Zelula eukariotoen zelula banaketaren bi prozesu gertatzen dira: MITOSIA edo **nukleoaren zatiketa** eta ZITIZINESIA edo **zitoplasmaren zatiketa**.



Mitosia


- Zelula ama batetik, bi zelula alaba sortzen dira, elkarren eta zelula-amaren berdin-berdinak, kromosoma kopuru berarekin, kopiak dira.
- Interfasean(mitosia hasi baino lehen) kromosomak eta zentrioloak bikoiztu egiten dira
- Organismo zelulabakarretan mitosisa sexu gabeko ugalketa da.
- Zelulaniztunetan hazteko balio duen mekanismoa da hiltzen diren zelulak ordezkatzeko.
- Prozesu jarraitua da, baina lau fase ditu



MITOSIAREN FASEAK			
PROFASE	METAFASE	ANAFASE	TELOFASE
			
Bikoiztutako kromosomak kondentsatu egiten dira. Mintz nuklearra apurtu egiten da eta nukleoloa desegin egiten da. Zentrioloetatik ardatz akromatikoa eratzen hasten da, hau da, proteinazko harizpi batzuk.	Kromosomak zelularen erdian jartzen dira ardatz akromatikoan eta ekuatore-plaka sortzen dute.	Kromosomak apurtu egiten dira zentromerotik. Kromosoma bakoitzaren kromatida bikiak bereizten dira eta bakoitza zelularen mutur baterantz abiatzen da.	Kromosomak zabaltzen hasten dira, eta kromatinaren egitura hartzen hasten dira. 2 Mintz nuklearra eratzen da eta 2 nukleoloa berriak agertzen dira.

Zitozinesia

- Zitozinesia **zitoplasma zatitzean eta bi zelula alaben artean banatzean datza.**
- Hainbat modutan gerta daiteke, animalia- edo landare-zelula den:



➤ **Animalia-zeluletan**, zelularen ekuatorean **estugune** bat sortzen delako gertatzen da zitoplasmaren zatiketa.

➤ **Landare-zeluletan**, zelula-pareta sendoa denez, ez da estu-gunerik sortzen, eta beraz, zitoplasmaren zatiketa **fragmoplasto** deritzon egitura baten bidez gertatzen da.

Células en diversos estadios de la división en el ápice de la raíz de cebolla.

